

Gela Irekiak: ikasle laguntzaile gisa parte hartzeko eskaera

Donostiako Informatika Fakultatea 1. mailako ikasleei Programazioko irakasgaietan laguntza ematea bultzatzen ari da.:

- Programazio Modularra eta Objektu Orientazioa
- Oinarrizko Programazioa

Laguntza horren nondik-norakoak:

- Asteko arduraldia: hautatutako ikasleek astean 3 ordu presentzial erabiliko dituzte 1. mailako ikasleei laguntzeko.
- Non: Informatika Fakultateko gela batean.
- Ordutegia: 3 ordu astean (koordinatzailearekin adostu beharrekoak).
- Prestakuntza: derrigorrezkoa izango da hautatutako ikasleentzat antolatuko diren prestakuntza jardueretan parte hartzea.
- Jarraipena:
 - ikasle laguntzaileek erregistro bat osatuko dute laborategira joaten diren ikasleen datuekin. Erregistro hori ez da publikoa izango eta Gela Irekien funtzionamenduaren azterketa egiteko balioko du.
 - Lauhilekoa amaitzean, laborategira joan diren ikasleek galdetegi bat beteko dute.

Ikasle laguntzaileak aukeratuko dira, baldintza eta balorazio irizpide hauen arabera:

Baldintzak:

- Matrikulatuta egotea Informatika Fakultatearen gradu batean:
 - Informatika Ingeniaritzako Gradua
 - Adimen Artifizialeko Gradua
- Gaingiduta izatea 1. eta 2. mailako kreditu guztiak (120 kreditu).

Balorazio irizpideak (gehienez 100 puntu)

- Espediente akademikoa (gehienez 50 puntu)
- Programazio lehiaketetan parte hartu izana (gehienez 20 puntu)
 - Ikastegi mailan (sailkapenekoak)
 - Estatuan (Ada Byron)
 - Nazioartean (Swerc)
- Programazio irakasgaietako nota (gehienez 20 puntu)
- Gradua amaitzeko falta diren kredituen kopurua (zenbat eta kreditu gutxiago, puntu gehiago, gehienez 10 puntu)

Gela Irekietan ikasle laguntzaile bezala parte hartzeko eskaera: mezu bat bidali dif.irakaskuntzarenplangintza.dekanordea@ehu.eus. Curriculum Vitae-a erantsi. Datu akademikoak ez dira erantsi behar.

Eskaera epea: 2025eko abenduaren 1 (e)tik 19(e)ra.

Aintzat harturik Graduako Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegia (UPV/EHUren Gobernu Kontseiluak 2019ko maiatzaren 16an onartua), lauhileko bakoitzeko 3 kreditu aitortuko zaizkie ikasle laguntzaileei.